

Sare neuronaletan oinarritutako dialogo-sistemak

Proposer(s) / Proposatzailea(k)

Eneko Agirre, Aitor Soroa

Contact / Kontaktua

e.agirre@ehu.eus, a.soroa@ehu.eus

Description / Deskribapena

Dialogo-sistemak gizakiak laguntzeko sistema automatikoak dira, eta beren ezaugarri nagusia da komunikazioa hizkuntza naturalaren bidez gauzatzeko gai direla. Azken boladan bultzada handia jaso eta eguneroko tresnetan aurkitu daitezke (Siri, Cortana, Alexa, etab.). Beraien elkarrizketarako ahalmena oso mugatua da, eskuzko erregelen bidez definituta baitaude. Horrek domeinu/enpresa berri batean ezartzeko edo behin produkzioan martxan dagoenean monitorizatu eta egokitzeko kostuak handitzen ditu. Hemen aurkeztutako proiektuaren helburu nagusia dialogo-sistemen egungo mugak arintzea da, sare neuronaletan oinarritutako hizkuntza-teknologiaren erabilaren bidez. Helburua aurrera eramateko, azken aldian sare neuronalei esker hizkuntzaren sorkuntza eta ulermenean lortutako hainbat aurrerapen (deep learning teknikak) dialogo-sistemen eremura ekarriko ditugu, hala nola, datu errealekin entrenatzeko gaitasuna (end-to-end ikasketa), datu sintetikoaren erabilera eskuzko datuen beharra arintzeko, edota domeinu berrietara egokitzeko teknika automatikoak. Horietaz gain, elkarrizketetan pertsonak daudela aprobetxatuko dugu feedback inplizitu eta esplizitua lortzeko behin martxan dagoenean. Feedback horri esker reinforcement learning teknikak aplikatu ahal izango dira, sistema ezarri ondoren bere kabuz hobetu eta etengabeko ikasketa (lifelong learning) ahalbideratuz. Publikoki eskuragarri dauden datu multzoak erabiliko dira ebaluazioan, artearen egoerako beste sistemekin konparatu ahal izateko.

Goals / Helburuak

Requirements / Betebeharrak

Framework / Esparrua

Tasks and plan / Atazak eta plana